

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------------|---|
| adeitasunez | «Begirune eta adeitasunezko hitzetan bilduta egon arren, bere ezetza erabatekoa izan zen.» |
| lohi | «Eskaera hark mesprezuaren lohia zeraman.» |
| aurrena | «Berehala, don Carlosen jarraitzaileak matxinatu egin ziren, aurrena Bilbon, hurrena Euskal Herri osoan...» |
| itzuri egin | «...uztailaren 14an abiatu zen Bilbotik tropa liberalen kontrolei itzuri eginez ...» |
| matxinatu | «Berehala, don Carlosen jarraitzaileak matxinatu egin ziren, aurrena Bilbon, hurrena Euskal Herri osoan...» |
| arnas-purrusta bota | «Muino baten aldapan gora jotzen zuen bideak, eta zaldia arnas-purrusta bat bota, kexati, eta buruari eragin zion...» |
| auskalo | «Toki baketsu eta lasaiaren itxura (...) –sukaldeetako kea tximietan gora doi-doi eta arimarik ez kaleetan... –baina auskalo .» |
| doi-doi | «Toki baketsu eta lasaiaren itxura (...) –sukaldeetako kea tximietan gora doi-doi eta arimarik ez kaleetan...– baina auskalo.» |
| ezproin | «Zaldia ezproiaz zulatu eta muinoan behera abiatu zen, basoa ostera terrenoaz nagusitzen zen alderantz.» |
| muino | « Muino baten aldapan gora jotzen zuen bideak, eta zaldia arnas-purrusta bat bota, kexati, eta buruari eragin zion...» |
| ostera | «Zaldia ezproiaz zulatu eta muinoan behera abiatu zen, basoa ostera terrenoaz nagusitzen zen alderantz.» |
| zelatari | « Zelataria zen, eta etsaiez josita ez zegoen edozein toki bere etxe bihurtzen zen berehala.» |
| arian-arian | «Berak ez zeukan arian-arian joatea beste erremediorik.» |
| arrotza | «Ezta ezer arrotzik aditzen ere, soilik bere zaldiaren ferra-hotsa lurra kolpatzean.» |
| ezinegona | «Bat-batean galdera batek gurutzatu zion burua: zergatik halako ezinegona ? Zergatik hegaldatzen ziren...» |
| ferra | «Ezta ezer arrotzik aditzen ere, soilik bere zaldiaren ferra -hotsa lurra kolpatzean.» |
| hasperen egin | «Martin Saldias hasperen egin zuen.» |
| zuhamuxka | «Ez zuen ezer apartekorik ikusten zuhamuxka eta zuhaitzen berde ilunaren artean.» |
| ernai | «...Martin Saldias lasaitu egin zen zertxobait, ahots hark guztiz ernai zegoen gizon batena ematen baitzuen.» |
| ezjakin egin | « Ezjakin egiten zuen bere burua, inuxente eta hitzontzi, eta halaxe moldatzen zen.» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------|---|
| hitzontzi | «Ezjakin egiten zuen bere burua, inuxente eta hitzontzi , eta halaxe moldatzen zen.» |
| bidatxurra | «...baina begibistakoa da hau ez dela zehazki bidea, bidatxurra baizik, nahiz primerakoa izan.» |
| makur | «Haren irritxoa xomorro makur bat bezalaxe aireratu zen.» |
| xomorro | «Haren irritxoa xomorro makur bat bezalaxe aireratu zen.» |
| zela | «Martin Saldias egonezinez mugitu zen bere zela gainean.» |
| dardarra | «...hantxe basoaren mintzoa, zuhaitzen dardarra eta hosto berdeen xuxurla; hantxe, halaber, txorien mintzo zorrotza...» |
| irri-karkaila | «...gaineratu zien jarraian ardoaren aipamena aditu eta irri-karkailaz ari ziren bi soldaduei.» |
| xuxurla | «...hantxe basoaren mintzoa, zuhaitzen dardarra eta hosto berdeen xuxurla ; hantxe, halaber, txorien mintzo zorrotza...» |
| atxiki | «Izuaren atzaparra bere giharreak atxikitze ko zorian zegoela sentitzen zuen, eta oldartu egiten zen posibilitate horren aurka...» |
| fitsik | «Tarte batean, ez zuen fitsik esan. Gero, paperak tolestu eta, begirik altxatu gabe, galdetu zuen...» |
| imintzioka | «Martin Saldiasek imintzioka eta zaldiaren burutzarraren gainetik tentetuz egiten zuen oihu.» |
| larderia | «...esan zuen tenienteak, lehengo larderia berberaz mintzatuz eta berari ametsetatik ateraraziz.» |
| oldartu | «Izuaren atzaparra bere giharreak atxikitzeko zorian zegoela sentitzen zuen, eta oldartu egiten zen posibilitate horren aurka...» |
| tolestu | «Tarte batean, ez zuen fitsik esan. Gero, paperak tolestu eta, begirik altxatu gabe, galdetu zuen...» |
| zokoratuta | «Bere burua zokoratuta ikusten bazuen, zaldia zen bere ihesbide bakarra.» |
| amarru | «"Laster konturatuko da amarruaz . Baina ordurako urrutiegi izango nau"...» |
| lasaitua | «...esan zuen Martin Saldiasek, hartutako lasaitua disimulatuz.» |
| zinez | «...zelatari horrek Sara zuela izena, baina ez zekiten izen hori –Martin Saldiasek amarena, zinez –, gizonezko bati zegokiola.» |
| ageri (?) | «Iluntasuna lurretik zeruraino igotzen zen, eta lehen izarrak ageria ematen hasiak ziren.» |
| jendaila | «Ez naiz jendaila horrengana inguratuko.» |

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------------|--|
| tupustean | «Bat-batean, zaldia gelditu egin zen tupustean , eta Martin Saldiasek lepotik heldu behar izan zion ez erortzearren.» |
| ahobero | «...bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena, baina, aldi berean, disziplinarik gabea, ahoberoa , inozoa.» |
| ezbai | «...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...» |
| gertu egon | «...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...» |
| hostotza | «Ilargiaren argiak nekez zeharkatzen zuen basoaren hostotza eta oso ahulduta iristen zen errekarra.» |
| lagun hurkoa | «...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...» |
| nekez | «Ilargiaren argiak nekez zeharkatzen zuen basoaren hostotza eta oso ahulduta iristen zen errekarra.» |
| osterantzean | « Osterantzean , altoa eman zioten liberalen informazioa askoz zehatza- goa izango zatekeen.» |
| deserosotasun | «...baina halako ezinegon batek, susmoa baino areago deserosotasuna zen zerbaitek...» |
| egokitutakoa | «Gizon arrunt bat, bizitzaren gorabeherengatik, leialtasunez, bide arriskutsu bat hartu beharrean egokitutakoa .» |
| leialtasun | «Gizon arrunt bat, bizitzaren gorabeherengatik, leialtasunez , bide arriskutsu bat hartu beharrean egokitutakoa.» |
| salatari | «...gisa honetan harik eta salatariak , liberalek kanpamentuan zeukaten zelatariak albistea jakin zuen arte.» |
| susmo | «...baina halako ezinegon batek, susmoa baino areago deserosotasuna zen zerbaitek...» |
| sasi-lo | «...baina ez zeukan egunsentira arte han, lurraren gainean, sasi-lo geratzerik.» |
| xuxurlari | «Isilune bat egon zen aurrena. Gero, ahots xuxurlari batzuk.» |
| errainu | «Adarra zapaldu zuen errainu hura beregana oldartzen ikusi zuen, sastakai bat eskuan.» |
| sastakai | «Adarra zapaldu zuen errainu hura beregana oldartzen ikusi zuen, sastakai bat eskuan.» |
| hinki-hankarik gabe | «Salatu egin zutela jakin zezan, Saraz galdetu nion hinki-hankarik gabe.» |
| piririka | «Denbora puska bat zeramatenean elkarri ekinean eta lurtean piririka ...» |
| pontean | «...persona batzuek bi izen izaten zituzten: alde batetik beraiena, pontean ezarri zitzaiena...» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------|--|
| zozolotuta | «Honek sastakaia altxata jarraitzen zuen, zer egin ez zekiela, ustekabeak zozolotuta utzi balu bezala.» |
| liskar | «Umore onean ematen zuen, liskarra dibertigarria suertatu balitzaio bezala.» |
| petralduta | «Saldiasak petralduta erantzun zion...» |
| mindu | «Ez zaitez nirekin mindu . Hemengo gizon-saila ez da handia...» |
| suminkor | «Gerra garaian, mundu guztia suminkor bihurtzen zen» |
| aldarte | «—Ados. Eraman nazazu. Ea bere aldarte hori biharko goxatzen zaion —erantzun zion sargentuak.» |
| enbarazu egin | «Osaba Tomasek ez zuen gogoko inork bere zelatariei enbarazu egitea .» |
| sobera | «...hala eta guztiz ez zuten sobera hitzeging eta (...) hurrengo batean luzeago eta hobeto hitzegitekotan geratu ziren.» |
| fidagaitz | «Oso gizon fidagaitza duk.» |
| isuri | «Harrizko etxea zen, lau isuriko teilatuarekin.» |
| odoltzar egin | « Odoltzar egiten zuen gogoratze hutsaz.» |
| goibeldura | «Nahiz eta, ilargiari esker, iluntasuna goibeldura baino ez izan, oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak...» |
| ostu | «Nahiz eta, ilargiari esker, iluntasuna goibeldura baino ez izan, oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak...» |
| ezkaratz | «...oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak: ezkaratz eta ate handiaz gain (...) landareak bakarrik...» |
| isildeia | «...Zumalakarregik bera etortzekoa zela jakin eta (...) isildeia jo zezatela agindu zuela...» |
| aztoratuta | «Sara naiz —esan zuen Saldiasak, apur bat aztoratuta .» |
| esne-mami | «...pribilegioa zuten bakar haietakoak, armada karlistaren esne-mami zen Gidari Konpainiakoak.» |
| iseka | «Altoa emateko azken unera arte itxarotea harrokeria iruditzen zitzaion, iseka .» |
| hunkibera | «Saldias ez zen gizon hunkibera . Aitzitik, bere akats nagusia (...) beste muturretik zetorkion, bere zomorrokeriatik...» |
| uzkurtu | «...bere gogoz kontra, jauregiaren inguruan arnasten zen giroak uzkurtu egiten zuen.» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|-----------------------|--|
| zomorrokeria | «...ez zen gizon hunkibera. Aitzitik, bere akats nagusia (...) beste muturretik zetorkion, bere zomorrokeriatik , are bere hoztasunetik...» |
| pairakor | «...halako distira gabetasun bat zuen, pairakor eta goibel bihurtzen zuena, abesti bati lotzeko ezgai edo.» |
| hutsal | «...karlisten koartel nagusira heltzen ziren mezuak albiste hutsalez zipristinduak egoten ziren, oso laburrak izateaz gain.» |
| zenduta | «Hura zenduta , Bizkaiko karlistek beren nagusietako bat galdua zuten.» |
| hazpegi | «Saldiasen begiak iluntasunera ohituta zeuden ordurako, eta nahiko garbi bereiz zitezkeen Zumalakarregi jeneralaren hazpegiak .» |
| beheko sua | «Kriseiluak itzalita zeudenez, sakristiako argi bakarra beheko suak ematen zuena zen.» |
| kriseilu | «—Ez mahaiekin estropu egin —esan zion hurbilduz. Kriseiluak itzalita zeudenez, sakristiako argi bakarra beheko suak ematen zuten zen» |
| bermatu | «Saldiasen ukalondoak mahaian bermatu eta aldamenetara begiratu zuten.» |
| listarizko | «Aranburuk barre egin zuen, aldi berean Saldiasi listarizko aulki batean esertzeko adierazten ziola.» |
| azitraia | «...ur hotzean edukitzen dizkiat, eta gero, ondo iragazi ondoren, kazola batean jarri urdaia, perrexil sorta bat, azitraia , gatza eta...» |
| iragazi | «—Aurrena babak zuritu eta ur hotzean edukitzen dizkiat, eta gero, ondo iragazi ondoren, kazola batean jarri urdaia, perrexil sorta bat...» |
| eroria | «—Ea piska bat animatzen haizen. Oso eroria ikusten haut.» |
| etsigarri | «...bere lehen hartu-eman zuzena armada karlistarekin, benetako soldaduekin, etsigarria zitzaion.» |
| lerratu | «Gauza bera egin zuen aldi hartan ere: (...) bere pentsamenduak aske lerra zitezten utzi.» |
| errauts | «...esan zuen Aranburuk, suaren gainera errautsa bota eta hurrengo egunerako bilduta utziz.» |
| korroka | «Herriko etxeen gainean pausatutako isiltasuna igelek bakarrik narrasten zuten, esna eta korroka jarraitzen zuten eta.» |
| narrastu | «Herriko etxeen gainean pausatutako isiltasuna igelek bakarrik narrasten zuten, esna eta korroka jarraitzen zuten eta.» |
| aginpidez esan | «—Utziak bukatzen —esan zion Aranburuk aginpidez .» |
| patu | «Izarrez eta patuaz hitzegiten duten liburuak zeuzkak.» |
| aieneka | «Bordelai hori, berriz, beti aieneka zebilek Parisen utzi zuen emakume batengatik.» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|-------------------------------|---|
| argixinta | «Zumalakarregiren kolumnak lehen argixintarekin atera eta bideari ekin zion Carandolet jeneralaren agintepeko tropa liberalen bila.» |
| herdoil | «—Osaba Tomasek hanketako herdoila kendu nahi ziguk.» |
| sasiki | «Kanpamentuan sasiki sartutako zelataria bera ote?» |
| begirale | «Nor ote zen zaldiz eta uniformerik gabe zihoan kankailu hura? Begirale bat? Bidea erakutsi behar zien nekazaria?» |
| kankailu | «Nor ote zen zaldiz eta uniformerik gabe zihoan kankailu hura? Begirale bat? Bidea erakutsi behar zien nekazaria?» |
| sigi-sagatsua | «Zaldiaren gainetik, boluntarioek beren txapelekin osatzen zuten lerro gorri, sigi-sagatsua ikusten zuen Martin Saldiasek...» |
| txepel | «” Txepelen gogo beroaz, esan nahiko duzu”, erantzun zuen alargunak...» |
| ahapeka | «Holakoxea duk —gehitu zuen ahapeka .» |
| begi larrikoa | «Hogeita hamar bat urteko gizona zen, argala eta begi larrikoa .» |
| izkin egitea | «...nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela, heriotza atzeratzea, izkin egitea ere bai, zorte piska batez.» |
| laian | «”Etor hadi gurekin”, zioten (...) eta laian edo segan harrapaturiko nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela...» |
| segan | «”Etor hadi gurekin”, zioten (...) eta laian edo segan harrapaturiko nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela...» |
| auzi | «...oso aberatsa duk eta asko lagundu zioke gure auziari —erantzun zion Aranburuk mokote samar.» |
| erdeinu | «...esan zuen Saldiasek, erdeinu ikutu batez.» |
| mokote | «...oso aberatsa duk eta asko lagundu zioke gure auziari —erantzun zion Aranburuk mokote samar.» |
| muzin | «—Oso muzin ikusten haut...» |
| isolatu | «Agureak, amurrain batzuk erreka ertzeko putzu txiki batean isolatzea lortu zuelarik...» |
| aztoratuta | «—Zertxobait aztoratuta ikusten zaitut, Alfonso. Horrenbesteko beldurra ematen al dizu ezkontzak?» |
| sinesgaiztasunez hartu | «...dama aristokrata batekin hitzemandako zegoelako berria zabaldu zenean, asko izan ziren berria sinesgaiztasunez hartu zutenak.» |
| gogaikarri | «Baina geldirik egote hau gogaikarria da zinez.» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|----------------------|--|
| kuzkurtu | «Carandoleten kolumna ez zetorren uste ordurako eta karlistak mutu eta isil kuzkurtu ziren harkaitz artean.» |
| talaia | «Denak talaian zeuden Zumalakarregi haitz-gain batean, punturik nabarmenenean, noiz azalduko.» |
| sarraski | «Kronikarien esanetan, San Faustoko bataila sekulako sarraskia izan zen.» |
| burrunbatu | «—Ene gaxo <i>débutant!</i> — burrunbatu zuen begi larriak areago zabalduz.» |
| egoskor | «Nik askotan esan nion ez etortzeko, baina egoskor jarri zen.» |
| lehia | «...kolore desberdineko txapelez jantzitako bi soldadu multzo elkartzen direnean, berehala hasten dela lehia ...» |
| sukartuta | «Aldika —zaurituta zegoelarik, sukartuta , Bilbotik eta Arenal Kafeko bere lagunartetik urrun...» |
| burduntzali | «Ura eskatu, eta irrika biziz burduntzalitik edaten hasten zenero, azentu frantses arin batez...» |
| hasten zenero | «Ura eskatu, eta irrika biziz burduntzalitik edaten hasten zenero , azentu frantses arin batez...» |
| galera | «Liberalek ez dute puska batean San Faustoko galera ahaztuko.» |
| burumotz | «...infiltratuak badaudela pentsatzeko, armada karlista burumotz utzi nahi duten infiltratuak, hain zuzen ere» |
| arrenkuratsu | «...barrez hasi zen. Barre lehorra zen, arrenkuratsua .» |
| jaurti | «... jaurti zuen Merinok aulkiaren bizkarraz bereizi eta teink jarri.» |
| teink jarri | «...jaurti zuen Merinok aulkiaren bizkarraz bereizi eta teink jarri —» |
| aldian behin | « Aldian behin , garondoan Barrezen eskua antzematen zuen. Burua altxatu eta zerbait ematen zion edatera, esnea edo.» |
| garondo | «Aldian behin, garondoan Barrezen eskua antzematen zuen. Burua altxatu eta zerbait ematen zion edatera, esnea edo.» |
| abistu | «...bere belarriek zehazki bereizten zituzten etxeko zaratak eta enaren abistuak . Oinak, berriz, ia ez zion minik ematen.» |
| burko | «Zergatik ez zuen burkoaz ito?» |
| enara | «...bere belarriek zehazki bereizten zituzten etxeko zaratak eta enaren abistuak. Oinak, berriz, ia ez zion minik ematen.» |
| sabai | «Berrito sabai aldera seinالاتu eta lehen esandakoa errepikatu zuen...» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|------------------------|--|
| erdiragarri | «Noizbehinka, garrasi erdiragarri bat jarraitzen zitzaion jauziari.» |
| | |
| jauzi | «Noizbehinka, garrasi erdiragarri bat jarraitzen zitzaion jauziari .» |
| | |
| inozo hutsa | «Lehen goan esan nizun bezala, Carrasco sargentua inozo hutsa da. Gizon ona baina inozo hutsa.» |
| | |
| arerio | «Handinahia eta harroa zen, baina ez zen arerioarentzat lanean ari.» |
| | |
| handinahi | « Handinahia eta harroa zen, baina ez zen arerioarentzat lanean ari.» |
| | |
| umegorri | «Okerrena da axeri hori berearekin atera dela ia beti, umegorri bati baino errazago sartu zidala ziria.» |
| | |
| ziria sartu | «Okerrena da axeri hori berearekin atera dela ia beti, umegorri bati baino errazago sartu zidala ziria .» |
| | |
| jostatu | «...Ihurtzango edo inguruko herrietako neskatilak, elkarren artean irrika eta beraien ardurapean utzitako umeekin jostatuz .» |
| | |
| ardaila | « Ardaila eta dantza oso gogoko ez bazituen ere, halako poz-ikara bat sentitu zuen Saldiasek.» |
| | |
| borborka | «Festa hasia dago eta laster herri osoa borborka egongo da.» |
| | |
| ergel | «Zer zen gizon hura? Ergela , hasieran pentsatu zuen bezala? Ala ondo trebatutako zelataria?» |
| | |
| gupida | «— Gupida ez dago lehian borrokarekin, jauna!» |
| | |
| orpo | «Gero orpoen arabera jiratu eta gelatik atera zen.» |
| | |
| atzimurkatu | «Saldiasek zuztar bat atzimurkatu eta loretxo batzuk eraman zituen sudurrera.» |
| | |
| zuztar | «Saldiasek zuztar bat atzimurkatu eta loretxo batzuk eraman zituen sudurrera.» |
| | |
| usnaka | «Saldiasek ez zuen ezer esan eta lapiko artean usnaka hasi zen. Gose zen berriro ere.» |
| | |
| xerratan zatitu | «...hogeita lau ordutan ontzen eduki nian olio, gatz xehea, xerratan zatitu tako tipula eta perrexilarekin.» |
| | |
| irasagar | «Aparta dago —gaineratu zuen, jantokian ari ziren andreetako batek zerbitzaturiko irasagar ratafia -ri txurrut eginez.» |
| | |
| ratafia | «Aparta dago —gaineratu zuen, jantokian ari ziren andreetako batek zerbitzaturiko irasagar ratafia -ri txurrut eginez.» |
| | |
| kaskezurra | «...Gidari konpainiako kideek, koartel emateko prest ez zeudenean, beren arropetan josi ohi zuten kaskezurra .» |
| | |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|-----------------------|--|
| koartel eman | «...Gidari konpainiako kideek, koartel emateko prest ez zeudenean, beren arropetan josi ohi zuten kaskezurra.» |
| xume jantzita | «Oso xume zegoen jantzita , alkandora txuri eta praka gris batzuekin.» |
| pagotxa | «Nire iritziz, pagotxa ederra da.» |
| egokitu | «...baina beren balak oholesi edo hondar-zakuekin egokitzen ziren, eta ahaleginak huts egiten zuten.» |
| oholesi | «...baina beren balak oholesi edo hondar-zakuekin egokitzen ziren, eta ahaleginak huts egiten zuten.» |
| muker begiratu | « Muker begiratzin ziotela iruditzen zitzaion, ikerketa bat aurrera eramateko gai ez den ume koxkor bati bezala...» |
| zentzatu | «—Lacost ez da inoiz zentzatuko —komentatu zuten Merinok.» |
| jukutria | «Baina, arian-arian, Aranbururen jukutria onuragarria gertatu zaigu.» |
| mikaztuta | «...esan zuten bat-batean Merino tenienteak ahotsa mikaztuta ...» |
| lazgarri | «...bigarrenean, berriz, ondoren etorri ziren gertaera lazgarriak , Gran Viako kondearen ihesa tartean.» |
| muzin egin | «...inork ez zion gisa hartako gonbidapen bati muzin egiten .» |
| belarrimotz | «—Kaixo, belarrimotzak! —erantzun zuten Don Ignaziok.» |
| makakorro | «Bere onetik aterata, makakorro moduko bat jaulkiz, mahaiaren gainetik salto egin eta kalerantz jo zuten korrika.» |
| oldartu | «Zalaparta handia sortu zen jantokian, eta ofizial guztiak troparen bila oldartu ziren.» |
| zalaparta | « Zalaparta handia sortu zen jantokian, eta ofizial guztiak troparen bila oldartu ziren.» |
| adeitsu | «Esku adeitsu batek katilu bat kafe zerbitzatu zion.» |
| jaulki | «Bere onetik aterata, makakorro moduko bat jaulkiz , mahaiaren gainetik salto egin eta kalerantz jo zuten korrika.» |
| trufaz | «Irriz eta trufaz , Margarita de Mendoza eta bere lagunak heriotzara eramana zuten adolezente hura.» |
| leher jota | «Saldias zutitu eta ate aldera abiatu zen. Leher jota sentitzen zen.» |
| totel egin | «Merino tenienteak piska bat totel egin zuten erantzun baino lehen.» |

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

estropozu egin«...bideari adi tarteka aurkitzen zituzten sustrai eta harkaitzekin **estropozu** ez egitearren.»**gibeleratu**«...gizonetako bat harresia inguratzen duen zangara erori eta garrasi egin zuenean, denak **gibeleratzen** hasi ziren.»**zanga**«...gizonetako bat harresia inguratzen duen **zangara** erori eta garrasi egin zuenean, denak gibeleratzen hasi ziren.»**sor**«Amorrazio **sor** eta sakona sentitzen zuen gertatutakoagatik...»**ahalguztidun**«Handi eta **ahalguztidun** sentitu nintzen...»**ezbaian egon**«Agindua eman nienean, soldaduak **ezbaian egon** ziren piska batez...»**abailduta**«**Abailduta** zegoen, eta eskuan zuen zapiak negarrez aritua zela adierazten zuen.»**profitatu**«Zenbaitetan, ilunpetan hariak mugituz eta nire sukaldari postuaren abantailak **profitatuz**, bestetaz baliatu naiz...»**murru**«...parez pare **murru** txuri batekin egokitu zen arte.»**erauzi**«Saldiasen ideia hura burutik **erauzi** eta alde egin zuen berehala.»**florete**«Loreekin batera, Lacosten **floreteetako** bat zegoen haren gainean pausaturik...»**hitz-beste egin**«Non dago jeneralaren zaldia? –galdetu zuen jarraian. **Hitz-beste egin** nahi zuen.»**txapaka egin**«—Ondo lo egin, *débutant!* –esan zion Lacostek Saldiasi pasiluan gelditu eta besoan **txapaka eginez**.»**hertsi-hertsi begira**«Lacost **hertsi-hertsi** begira geratu zitzaion.»**kinkan**«Serio, kontzentraturik, maisu bat zirudien azterketa bat zuzentzeko **kinkan**.»**gar**«Saldiasen kriseiluaren **garrean** pausatu zuen begirada.»**gizonilo**

«Arazoa da Aranburuk gizonilo bat bezala erabiltzen zuela...»

barrenak izan«Baina ez nuen nire asmoa azkeneraino eramateko **barrenik izan**.»**errenditu**«Otorduan, hiru gizonen arteko elkarriketa gerrako gorabeheretara **errenditu** zen.»**hobi**«...batailan hildako boluntario gehienak **hobi** orokorretan ehorzten zituzten.»